

Euskararen VII. Maratoiko eten gabeko bi probetan izena emateko epea zabalik

Aurtengo edizioan ere eten gabe martxan egongo diren bi proba izango ditugu. Bata Teresategi mendira igoko dena, bestea berriz, erronka, Baietz 7 maratoi korrika egin! /4

EUSKARAREN
MARATOIA 7

Korritzeko
modukoa!

Lasarte-Oriako I. Factory Feriak harrera ona izan zuen

Herritar ugari gerturatu zen Michelingo tenis-gunera pagotx eta saldo bila

Arropa, oinetakoak, elektronika tresnak, liburuak, etab. salgai eta prezio ezinhobean. Hau guztia, igandean Michelingo tenis-pistetako barrutian ospatu zen Lasarte-Oriako Stock eta saldoen I. Factory ferian ikusi ahal izan ziren.

Eguraldia lagun jende ugari bildu zen ferian. Udaltzeko ordezkariak ere bertan ikusi ahal izan genituen, hala nola, Ana Urchueguia alkatea edo Merkataritzako Departamentuko buru den Ricardo Ortega. Eta Amalur eskolako trikitixa eta pandero joleak ere bertan egon ziren Factorya giroten.

Hala ere, goizeko hamaika eta erdiak arte, ez zen mugimendu handirik egon. Orduetik aurrera, pixkanaka bete

ziren merkatarien guneak, arropa eta oinetakoak gehien bat, eta sarreran ilara egin zen.

Poltsa ugari

Ateratzerakoan lasarteoriatarrek poltsak eskuan, sarrerako euroak gain besterik gastatu zuten seinale.

Haurrek ere ez zuten aspertzeko aukerarik izan, gaztelu puzgarriak, surf taula eta jokoak izan baitzituzten egun osoan zehar.

Feriak gaueko 21:00ak arte iraun zuen eta, orduan, Factoryra joandakoen artean Zumaia bainuetxean tratamendu egiteko sarrera bikoitza zozkatu zen. Irabazlea hurrengo TXINTXARRIn jakin araziko da. •



Bizikleta jai arrakastatsua Okendo plazan

Ostiralean Mugikortasun Iraunkorraren astearen baitan ospatu ziren ekitaldiei buruzko balorazio baikorra egin dute antolatzaileek.

Izan ere, txiringaren erabilera sustatzeko antolatu ziren ibilaldi eta haur jolasetan lasarteoriar askok parte hartu baitzuten.

Honetaz gain, bigarren eskuko bizikleta eta osagarrien merkatu txikiak ere onespina izan zuen herritarren artean. Nahiz eta lehen aldia izan, hainbat gauza salgai egon ziren Okendoko karpan eta salmentak ere egon zirela aipatu digute antolatzaileek. •



GIZARTEA ■ 3

Hiri-busak erdigunea eta auzoak lotuko ditu ordu erdiro

ERREPORTAJEA ■ 5

Mikel Kastresana Donostian hil zutenetik 20 urte pasa dira

KIROLA ■ 3

Martin Egaña eta Santi Garcia V. Bolo oroimenezkoa ospatu zen atzo



Material elektrikoa Argiak
Etxetresna elektrikoak
TB/Hi-Fi
Instalazio elektrikoak

ELEKTRIZITATEA
E
ARREGUI



ANAIAK

JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 · Tel.: 943 362386
LASARTE-ORIA

Kalera aldizkariaren 3. alea laster etxeetan

TXINTXARRI

Hirugarren urtea da komunikabide desberdinetan lanean ari diren profesional talde batek, kazetari zein argazkilarik, bere gogoia, denbora eta lana aldizkari hau aurrera ateratzeko jartzen duena.

Denek bat egin dute preso eta errepresaliatuen berri ematearen alde eta honi esker *Kalera*ren 3. zenbakia kalera-tu ahal izan da.

Edukia eta helburua

Ale honetan preso eta senideei egindako elkarrizketez gain, presoek idatzitako hainbat eskutitz irakurri ahal dira. Esate baterako, Mikel Kastresanaren hilketaren 20. urteurrena gogoratuaz, Begoña Uzquidun bere neskalagunari elkarrizketa edo Mitxel, Ina edo Juankarren kartak.

Aldizkariaren egile den Etxerat elkarteak, aditzera eman duenez, "egungo sakabanaketa eta bakartze kartzela politikaren helburua preso bere familia eta lagunengandik inkomunikatzea dela uste dugu. Are gehiago esango genuke, honen inguruko senide eta lagunak kilometro luzeetako bidaiak egitera zigortu."

Honela, kalera aldizkaria egin dutenen helburua herria informatzea da, espetsxean zein egoeratan aurkitzen diren, zein zigor ezartzen zaien, non eta nola dauden kaleratzea.

Izan ere, 10 herritar daude preso estatu espainiar zein frantsesean eta sakabanaturik

daude, gertuen dagoena 600 kilometrotara dago eta urrunena 1.100 kilometro baino haratago.

Egoera honen aurrean, sakabanaketarekin amaitu, zigorraren luzapenekin amaitu eta dagozkien eskubide guztiak errespetatzearen aldarriarekin bat egiten dute Kalera aldizkariako egileek.

Senideen irakurketa

Era berean preso senideek aldizkariari buruzko hausnarketa egin dute komunikabideentzako.

Bertan ekimena aintzat hartzen dute eta proiektu honi esker zenbait puntu nabarmentzen direla aipatzen, hala nola, Lasarte-Oriako herritarrek giza-eskubideen alde eta dispersioaren aurka agertzen direla edo egun mantentzen den presoenez egoerei hitz ematea.

Honela, senideek presoek *Kalera* aldizkaria eramango zaiela jakin arazi dute. Izan ere, egunerokoa irakurtzea debekatzen baitzaie batzuetan.

Honetaz gain, dispersioak senide eta lagunentzat errepresio handia dela salatzen dute. Presoen lur jotzea eta amore ematea helburu duen zigor politikoak kontrakoak lortzen duela aipatzen dute, "gure biziak arriskuan jartzen duen bidaia da eta bisitetan dugun aurrekontu ekonomikoak kontuan izanik lapurretara ere bada".

Horregatik, bisitek, eskutitzek eta elkartasun adierazpenak senideentzat balio handia



Presoen senideek *Kalera* aldizkariaren hausnarketa positiboa egin eta ale berriaren azala aurkeztu zigten.


duela esaten dute, baita *Kalera*ri esker, Estatu frantses zein espainiarrek presoek ezartzen dizkien politika salatzen dutenen zenbakia handitzen doala ere.

Elkarretaratzea Donostian

Era berean, Etxerategi jakin arazi digu "azken ostiralero" elkarretaratzerik ez dela egingo Lasarte-Orian ostirala honetan.

Aldiz, Preso, Errefuxiatu eta Errepresaliatuen Senideek, Donostiako Konstituzio plazan dute hitzordua 20:00etan.

Asmoa elkarretaratzea Zinemaldiaren atarian egitea da eta horregatik parte hartze-
ra deitu dute. •



Giro ederra egon zen Jalgin ostiral iluntzean *Sexty Sexers* taldearekin.

Sexty Sexers taldeak ederki girotu zuen Jam Sesio rockeroa

Jam Sesioen denboraldi berria ostiralean hasi zen eta indarrez hasteko, hauen lehen emanaldia rockeroa izan zen.

Eta horretarako gonbidatu bereziak izan ziren, *Sexty Sexers* taldeko hiru partaide: Joseba Baleztena *Electric Child* gitarra, Julen Irazoki *Jazz Suicide* gitarra eta Mikel Larratxe *Mike Strangelove* ahotsa.

Lehen aldia da Jalgi Kafe Anzokian jam sesio rockero bat egiten dena, beti jazz, funk edota blues bezalako ritmoak izan baitira nagusi. Puntual ez baziren hasi ere, jende asko bildu zen talde beratarrekin dantza egitera.

Sexty Sexers 2001eko

ondarreen sortu zen musika taldea da, beranduago Ameba izena jarriko ziotena. Gazte nafarrak, Berako Aduana zaharreko egoitzan entsaiatzen hasi ziren, lehenbizi bertsoiak eginez eta pixkanaka zaharreko sortuz. Oraindik joera garbirik gabeko kantuak lehen aldiz urtebete beranduago agertuko zituzten zuzenean herrian bertan emandako kontzertuan.

SextySexers izenpean 2005eko ekainean eman zuten lehen kontzertua. Ondoren, boskoteak ez du jotzeko aukerarik galdu eta mota guztiakoko eszenatokiak zapaldu ditu, baita bi diska argitaratu ere. •

Bost egun hauetan Hiri-busak lotuko ditu erdigunea eta auzoak

20 lagunentzako autobusak ordu erdiro egingo du herrian zehar itzulia

JON ALTUNA

Donostia eta Tolosaldeako autobus konpainiaren mikrobus batek Lasarte-Oria herri barruko zerbitzua eskainiko du goizeko 7:30etik arratsaldeko 20:30era bitartean, gaur hasi eta ostiralera arte. Antxisutik abiatuta erdigunetik urrutien dauden auzoetara iritsiko da. Ordu erdiko ibilbidea egingo du etengabe eta erabiltzaileei bere beharrei buruzko galdeketa egingo zaie. Erantzunak Udalaren buzoi berdeetan edo ingurumen departamentuan utzi daitezke.

Egun hauetan Mugikortasun iraunkorraren Astea burutzen da Europako hainbat hiritan eta Lasarte-Orian Udalak frogatzen du egiteko baliatuko du. Astearen helburua herritarrek oinez, bizikletan edo garraio publikoan ibiltzea lehenestuz deitzen gogoeta eragitea da, Rikardo Ortega Ingurumen sailako arduradunak adierazi duenez, eta Udalak hiriko garraio publikoa probatzeko erabiliko du. Herrian hiribusa izango da asteko protagonista.

Ekzer Batuko zinegotziak argi du ezingo dela esperientzia honek erabilari buruzko behin betiko ondorioak atera, baina erabiltzaileei buruzko informazio baliagarria jasotzea espero dute antolatzaileek.

Proba moduan, zerbitzua doan eskainiko da ostiralgunetik bitartean eta bide ezberdinak erabiliko dira herritarren beharrik ezagutzeko. Batetik teknikari bat autobusean ibiliko da ahalik eta datu gehiena biltzeko eta bestalde, galdera sorta bat banatuko zaie erabiltzaileei bere beharrik jakinarazi ditzaten.

Esperientzia pilotua

Udalaren asmoa horixe da, gero bakoitzeko informazio zehatza jasotzea: "Jasotako informazioa etorkizunerako oso garrantzitsua izango da gerora gauzak ahalik eta ondoen egiteko" esan zuen zinegotziak. Esperientzia honetan eta erabiltzaileei zuzenean jasotako irizizien oinarritutako da Udala gero gaiari buruzko erabakia hartzeko.

Hiribusari buruzko galdeketa erantzunak eta mugikortasun iraunkorari buruzko edozein irizitzi, iradokizun eta proposamen jasotzeko buzoi berdeak daude Udaltxe Sarreran, Kultur Etxean, Kiroldegian eta Zaharren Etxean edo Ingurumeneko departamentura bidali daitezke. Ortegak jendearen parte hartzea eskatu zuen prentsaurrekoan.



Autobusean 20 lagun sartuko dira eta orduerdiro pasako da aurrez izendatutako 24 geralekuetatik.

Gaur, irailaren 22a, Autorik Gabeko Eguna, Kale Nagusiko parte bat oinezkoentzat zabalduko da

Goizeko 7:30etatik iluntzeko 20:30era bitartean martxan izango da Hiribusa. Astelehenean ostiralera, ordu-erdiko joan etorriak egingo ditu Antxisutik abiatuta. Udalak proban jarri duenez doan eskainiko da zerbitzua eta ostiralera bitartean ondorengo ibilbidea eta geltokiak izango ditu, guztira 24 geraleku dira: Antxisu (orduan puntuan eta erdian gutxi gorabehera), Oria (bus geltokia), Basaundi (bus) Arranbide 16 (puntuetan 605 713 512 telefonon eskatuz gero), Bista Eder (Ordu eta erdian 605 713 512 telefonon eskatuz gero), autobusen garajea, Kale Nagusia 39 (bus), San Pedro Parrokia alboan, Sasoeta eskola ondoan, Zabaleta auzoa, plazan, Donostia etorbidea, (bus), Pablo Mutiozabal 2, Iñigo de Loiola kalea, Kultur Etxean, Mitxelingo kirol gunea, Osasun Zentroan, Kale Nagusia 4 (bus), ORia (bus) eta berriro Antxisu. Guztira ordu erdiko ibilbidea izango da eta beraz ordu erdiro pasako da geltoki hauetatik.

Aspaldiko asmoa

Hiribusa Arranbide eta Bista Ederrean joateko bere ibilbidetik atera behar denez, soilik beharrezko denean joango da. Buses toki horietan hartu nahi dutenek 605 713 512 telefonora deitu beharko dute minutu batzuk lehenago. Bestela ez da hortik pasako.

Santiago Sarasola Donosti-

Tolosaldea Tranbia Zerbitzuko ordezkariek aurkezpenean esan zuten aspaldiko asmoa da Lasarte-Orian honelako zerbitzua jartzea. Orain Udalaren eskaeraz prestatu dute ibilbidea eta egun hauetan probatuko dute. Ilusioz beteta daudela adierazi zuen zerbitzu iraunkor bat jartzeko lehen pausua delako. Autobusa txikia da, gehienez 20 lagun sartzen dira eta elbarrientzat ere prestatua da Atsokabarren eguneko zerbitzua eskaintzen duen autobusa erabiliko baita.

Ordu erdian joan etorria egiteko nahiko justu ibiliko direla esan zuen Sarasolak eta beraz herritarrei eskatu zien saiatu daitezkeen aste horretan autobusean bidea ez oztapatzen eta bigarren lerroan ez aparkatzen. Bestela Hiribusak ezin izango du ordutegia bete.

Ondo gidatzeko ikastaroa

Eraginkorki gidatzeko ikastaroa, gaur arratsaldean burutuko da, 16:00etatik 20:00etara bitartean Manuel Lekuona Kultur Etxean. Aurreko urteetan ere eskaini den ikastaro honen helburua autoa erabiltzerakoan gutxiago kutsatzen eta erregaia aurreratzen erakustea da. Mikel Urruzolak Artelatze ordezkariek esan zuten emaitza oso onak izan ditu, egun dutenak gustura geratu dira.

Ondo gidatzeko zenbait aholku ematen dira ikastaroan eta arlo teoriko horretaz gain frogatzen dituzte egiten da: hasteko, norberak gida-

tzen duen moduan egiten du ikasleak ibilbidea. Gero gutxiago kutsatzeko eta erregaia aurreratze gomentioak ikusi ondoren, berriro egiten du joan etorri berrera, kontsumoan eta gasen emisioan aldea ikusteko. Doan da ikastaroa, baina partaide kopuru mugatuarekin: informazio gehiago eta izena emateko 943 36 60 55 (Gurutze)

Rikardo Ortegak adierazi zuenez autoa gutxi erabili behar da eta erabiltzen denean modu eraginkorrean eginez gero hobe.

Autorik gabeko eguna

"Nire autorik gabeko eguna" izendatu dute Europan astelehena, hilaren 22a, eta beraz, gaur, autorik ez hartzeko eskatu. Kale Nagusiko parte bat itxita egongo da autoentzat goizeko 9:00etatik 13:30etara bitartean, Ola kalearen ikastera, norabait autoz joan eta lekua dutenek www.lasarte-oria.com/partir.org web orrialdean erabili dezakete joan-etorri berrera egiten duten beste herritar batzuekin harremanetan jarri eta elkarrekin joateko. Ekimen honen helburua nagusia ere, autoa zentzunez erabili eta kutsadurari aurre egitea da.

Ahal diren joan etorri gehienak oinez egiteko, garraio bide bezala bizikleta ibiltzeko eta garraio publikoak erabiltzeko gomendatzen du Lasarte-Oriako Udalak banatu dituen eskuorrietan. Autoa partekatzeari bultzada ere eman nahi dio eta Udaleko web orrialdearen bitartez auto partekatzen laguntzen du. Lanera, ikastera, norabait autoz joan eta lekua dutenek www.lasarte-oria.com/partir.org web orrialdean erabili dezakete joan-etorri berrera egiten duten beste herritar batzuekin harremanetan jarri eta elkarrekin joateko. Ekimen honen helburua nagusia ere, autoa zentzunez erabili eta kutsadurari aurre egitea da.

IKASTAROA

Igeriketa ikastaroa helduentzako

Urriaren 1etik azaroaren 14ra, helduentzako igeriketa ikastaroa eskainiko dute udal kiroldegian. Astearen hiru saio izango dira (astelehenean, asteazkenean eta ostiralean), 19:10etatik 20:30etara. Izena emateko azken eguna irailaren 26a da. Ikastaroak 100,40 euro balio ditu eta kiroldegiko bazkide direnentzat 55,80 euro. Informazio gehiago nahi izanez gero kiroldegiko bulegora hurbildu behar duzue edo 943-376182 telefonon ere informazioa eskatu dezakezue.

IKASTAROA

Zurezko taila ikastaroa

Manuel Lekuona Kultur Etxean zurezko taila ikastaroa eskainiko dute 15 urtetik gorako guztiontzat eta bi talde osatu nahi dituzte. Taldeak 12 pertsonaz osatuko dira gehienez. Ikastaroa urriaren 7an hasi eta abenduaren 8ra bitartean iraungo du. Astearen bost ordu izango dira: lehenengo taldea asteartean eta ostegunean 15:00etatik 17:30etara eta bigarrena, asteartean eta ostegunean 17:30etatik 20:00etara.

Izena emateko epea gaur astelehena hasi eta urriaren 3ra arte zabalik egongo da Gazteen Informazioarako Udala Bulegoan (Kultur Etxeko hirugarren solairuan), astelehenean ostiralera 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Ikastaroaren prezioa: errolatuentzat 41,20 euro eta errolatutako gabeak 77,75 euro.

IKASTAROA

Literatur tailerra

Lasarte-Oriako Udaleko Kultura eta Hezkuntza sailak antolatuta, urriaren 3an 16:00etan, ostirala, martxan jarriko du Literatur Tailerra, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Aurreko urteetan bezala, M^{re} Carmen Perez Rosiere izango da lantaldearen koordinatzailea. Tailerra ostiralean izango da eta maiatzean amaituko da.

Parte hartzeko interesa duten pertsona guztiek kultur etxera hurbildu beharko dute tailerraren lehenengo egunean, urriaren 3an, arratsaldeko 16:00etan. Bertan jasoko dute informazio gehiago.

Euskararen VII. Maratoian etenik gabeko bi proba egongo dira aurten

Bi proba horiek, Teresategira oinez igotzearena eta Baietz zazpi maratoi korritu!, martxan egongo dira asteburu osoan

Helena FERRERAS


Aurtengo maratoian eten gabe martxan egongo diren bi proba daudela badakigu dagoeneko, baina mapa azalpen guztiekin hementxe edo www.euskararenmaratoi.com web orrialdean aurkitu ahal izango duzue. Proba politak baina desberdinak dira biak, bata herri inguruan izango da eta bestea mendi aldera irteera txiki bat. Bi proba hauen helburua maratoia plazan ez ezik herrian zehar ere zabaltea da, ekintza garrantzitsuenak taula gainean izango dira, baina bitartean Maratoia herrian zehar mugituko da. Taula gainean zortzikotekoak ikusiko ditugu denbora tarte gehienez baina lasarteoriata-

rrak dira maratoiko protagonistak eta nahi duten uenez parte hartu dezakete horrelako frogetan adibidez.

Parte hartzaileak taldekatuak antolatuko dira txanda ezberdinetan, horretarako ordutegiak prestatu dira txanda batekoak bukatzean hurrengoak atera daitezkeen, horrela asteburu osoan zehar herria maratoiarekin batera martxan egongo da. Nahi den txanda aukeratu eta izena emateko aukera web orrialdean bertan dago edo bestela Ttakunetik pasa eta bertan ere egin daiteke.

Teresategiko probaren nondik norakoak

Teresategi mendira joan etorria helburu batekin egingo da: Pinu Kozkorra hartu eta



Teresategiko frogako ibilbidea.

oholtzan entregatu beharra dago. Igandean, amaitutakoz, 40 pinu kozkor egon beharko dira oholta gaineko saskian proba gaindituzat eman dadin. Txanda bakoitzean motxila bat eramango da errelebo moduan, motxilari lotuta makila bat egongo da banderlin txiki batekin bereizgarri moduan eta gainera pinua bertan gorde ahal izango da. Beraz, bueltan dato-

ren taldeak abiatzen denari motxila pasa eta berriro gora. Motxila gora eta behera ibiliko da eta pinuekin batera probako elementu garrantzitsua izango da.

Ibilbidea Okendon hasiko da, bertatik Kale Nagusira eta eliza ondotik Zabaletaraino iritsiko da. Pepene baserrira iritsitakoan handik zuzenean Teresategira. Bertan, probaren zatirik garrantzitsuenak egin behar da, pinua hartu eta motxilan ondo gorde Okendon uzteko. Bide beretik berriro buelta plazaraino egin beharrekoak egin eta gero eta han oholtzara igo eta pinu kozkorra utzi. Orduan egongo da proba gaindituta talde horrentzat baina berrogei pinu kozkorrak bildu arte iraungo du probak. Talde batek bukatutakoan hurrengoak motxila hartu eta *Tiriri Tarara Teresategira!*

Baietz 7 aldiz korritu maratoia!

Apustu bat egin eta gero euskaldunok badakigu zer tokatzen den, kosta ala kosta esandakoa bete behar da!

Proba honetan 2 kilometroko zirkuitu batean egin behar da korrika zazpi maratoien kilometroak osatu arte, bata bestearen atzetik irteera ordu finko batzuekin. Zazpi maratoien hasiera bakoitza oholztatik pasako da, bitartean txanda ezberdinak egongo dira. Larunbatean hiru

maratoi korrituko dira eta igandean lau. Larunbateko lehenengo irteera 9:05ean izango da, 12:35ean bigarre-na eta 16:05ean hirugarrena. Igandean aldiz lehenengoa 8:20ean, bigarre-na 11:50ean, hirugarrena 15:20ean eta azkena 18:50ean. Beraz, badakizue, maratoia web orrialdean sartu eta eman izena ongien datorkizuen maratoian.

Maratoi bakoitza talde batek egingo du baina bidean nahi duena gehitu daiteke martxara (Korrikan bezala), hau da, bakoitzak nahi duen zatia egin dezake, nahi duenez sartu edo atera. Badakizue kirolzale amorratu asko dagoela herrian eta horiek nahi adina maratoi egin ditzakete, beste batzuk ordea lasaiago dabilta eta probaren zati bat egin dezakete nahi izanez gero.

Ibilbidea Okendo plazan hasiko da, Geltoki kalea hartu eta Michelin aldera. Urbil merkatal zentro paretik pasa eta han eskuinetara jo trenbidearen paretik pasatzeko. Tajamar errotondaraino iritsi eta berriro Geltoki kaleraino, txanda aldaketa garaian bakoitza sartu beharko da Okendo plazara. Zazpi maratoiak egin ostean emango da proba gaindituzat. Proba gainditu ahal izateko beraz, proban parte hartzeko prest dagoen jendea behar da, beraz animatu eta parte hartu. •



Baietz zazpi maratoi korritu! frogako ibilbidea.

20 urte Mikel Kastresana hil zutenetik

30 urte zituen poliziek Donostian tirokatu eta hil zutenean. Zirikatzaile eta mendizalea zen

Mikel Kastresana lasarteoriarra poliziek hil zutela 20 urte beteko dira bihar eta aste berezia izango da bere senide eta laguntzat. Bihar asteartea omenaldia egingo diote Okendon duela 20 urte gertatua gogoratuz. Donostiako Konstituzio plazan tirokatu zuten

ETAko kidea 1988ko irailaren 23an eta ondorengo egunetan Lasarte-Oria poliziek hartua izan zen. Herritar eta senideek ez zuten lasaitasunez azken agurrik ematerik izan. Larunbatean, irailak 27, Gudarien Egunean, Zabaleta auzoan berriz omenduko dute.

Jon ALTUNA

Omenalditxo bat egingo diote bihar asteartea, arratsaldeko 7:30ean Okendon, Mikel Kastresanari, bere hilketaren 20. urterrena betetzen denean. Informazio taula batzuk ere jarriko dira orduko gertaera hura gogoratzeko. Bestalde, Gudarien Eguna izango da urtero bezala hilaren 27an, Txiki eta Otaegi fusilatutako zutuzten egunean, eta aurtan Mikel Kastresana bereziki gogoratuko dute Lasarte-Orian. Larunbatean, beraz, Zabaletako plazan goizeko 11etan omenaldia egingo zaio. Eta bestalde, deialdia luzatu dute, Hernanin arratsaldeko 8etan Gudarien plazan egingo den eskualdeko manifestazioa joateko.


30 urte betetzear zen Mikel Kastresana Donostiako Konstituzio plazan tirokatu eta hil zutenean. Bost tiro jaurti zizkieten oso gertutik poliziek. Begoña Uzkudun une hartan berarekin zen lagunak argi dauka polizia Mikel hiltzera joan zela: "Aurretik ondo planifikatuta zeukaten Mikelen erailketa. Gero, komisaldegian galdeketa une batetan ez zeuden konforme nik esandakoekin eta zera esan zidaten: "al parecer eres tú la que tenía que estar muerta y tu amigo al que necesitábamos vivo".

Kontu ilunak

Familiak eskatu zuten gertaera argitzeko baina ez dute erantzunik izan. "Kasua itxi zen eta kitto. Bertsio ofizialaren arabera Mikel eta polizien arteko tiroketa izan zen. Baina puntu ilun eta kontraesanak dira". Kasualitatez topatu eta ezagutu egin zituztela, alto eman eta arma atera zuela esan zuten.

Familiak, aldez, beraien bila joan zirela, uste du, ez zela kasuala izan. "Ez da posible, egun normal batean juxtu beraien zeuden tokian hainbeste polizia izatea. Nahi bazuten hartuko zituzten akatu gabe" salatu dute senideek, eta puntu ilunak aipatu: Mikel tiro egiten saiatu zela esan zuten, baina lekukoek aitortu zutenez liburua zuten eskubiko eskuan, eta hartzekotan eskuinaren hartuko zuten pistola. Kontraesan horien artean gertatu dute aurretik erabakita zutela Mikelen hilketa, baina kasua itxi egin zuten.

Jaso zituen bost tiroetatik bat buruan eman zioten eta beste bat bihotzean. Biak oso gertutik,



Mendizalea zen oso, Mikelen arrebe ondo gogoratzen dutenez. Bost ziren bera eta lau arreba.



Poliziak herria erabat hartu zuten Mikel hil eta ondorengo egunetan.

Mikel Kastresanaren familiak eskatu zuten gertaera argitzeko, baina ez dute erantzunik izan. Kasua itxi egin zuten

autopsiaren arabera. Arratsaldeko 8:30ean hil zuten Donostian eta berehala heldu zen albistea Lasarte-Oriara. "Argazkiak atera zituzten pertsona bat ezagutzen genuen eta ikustean argi geratu zen. 8.30ean gertatu zen eta gaueko 11etan herrian bagenekien bera zela. Notizia segituan zabaldu zen" kontatu digu bere arrebatoko batek.

Gau horretan joan ziren Polloera baina ez zieten ikusten utzi. Hurrengo goizean, baimen bila bidali zituzten epaitegira eta gerora ikusteko eta hilerrietik elizara jaisteko baimenarekin joanda ere oztipoak jarri zizkieten. Azkenean guraso eta arreba sartu ziren baina banaka.

Ondorengo egunak tentsio eta amorru handikoak izan zirela

gogoratzen dute senideek. "Gorpua zekarren autoan sartzen ez ziguten uzten, baina deskuido batean ama sartu eta ez zen gehiago atera. Autoa poliziez inguratuta iritsi zen herrira eta zuzenean hilerria eraman zuten. Herria hartuta zegoen, dena goardia zibilez bete, kanposantura hurbildu ziren guztiak kontrolatu zituzten eta kanpotik etorri zirenei ez zieten herrira sartzen utzi".

Eliza ondora Galindo etorri zela eta tanketak ere ekarri zituztela oroitzen dute Mikelen arrebe. Jendea lasai bazen ez zela ezer gertatuko esan zuten arren, Goardia Zibilek jendea jipoitu zuten. Baita herritik kanpo, hipodromo inguruan autobusetan zeudenak ere.

Zirikatzailea

Mikel Kastresana oso zirikatzailea zela ondo gogoratzen dute bere arrebe. "Bati ez bazen besteari, beti zirikatzen. Etxekoei, bai, baina lagunartean gehiena". Lagunek aitortzen dute batzutan lotsati xamarra zela zirudiela baina behin ezagututa saltseroa, umoretua eta adarjolea.

Bost ziren etxean lau arreba eta Mikel. Mutil bakarra izan arren eteko lanetan edo erosketak egiten laguntzen zuten. Telebista ikusteagatik jasotzen omen zuten sukaldea arrebe jakinarazi diguzke: "nik jasoko dut sukaldea eta zuek ohera joan, esaten zuten eta horrela telebista ikusten geratzen zen bera. Bestela gurasoek ez zioten utziko hurrengo egunean eskola joan behar zuten eta". Oroimen goxoak dituzte arrebe. Txikiengan garbitzen zion autoa eta berak trukean 25 pezeta ematen zizkion.

Ikasle bizkorra zela ere oroitzen dute, "azkarra, baina sekula ez zuten lan asko egin nahi izaten, eta ez zuten etxerako lanik eramaten. Denak eskolan egiten zituzten" dio bere arrebe. Garai hartako lasarteoriar mutil koskor gehienak bezala, aurrena Lasarten ikasi zuten, gero Añorcan, aurrerago Don Boscon eta azkar hasi zen Luzuriagan lau ordu ikasten eta beste lau lanean, 16 bat urterekin. Amak esaten zion aitak baino gehiago irabazten zuela. Bertan aritu zen 1984an, 25 urterekin lparaldean babestu zen arte. 1988ra arte lau urte pasa zituen errefuxiatua. Orduan bere lehen kezka gurasoak ziren, beti galdetzen zuten nola zuden. "Hori zen lehen gauza".

Euskara eta euskal kultura izan ziren langileria arazoekin batera bere kezka nagusiak eta oso gaztetatik aritu zen sindikalagintzan, LAB sindikatuan. Luzuriagan hasi eta ondorengo urtetan asko joaten Astigarragara, hangoa baitzuen neska laguna. Bertako Astigar Kultur Taldean aritu zen eta hango euskaltegian berreskuratu zuten euskara. Futbitoan aritzen zen han eta zesta punta jokatzera joaten zen Galarretara.

Mendizalea

Baserririk giroa, natura eta mendia ere biziki maite zituen eta bere ametsetako bat zen bizitzera baserrira joatea. Espeleologia ere egiten zuten lagunekin, Lekunberriko kobazuloetara joaten ziren, ehizan ere aritzen zen eta urpekari ekipoa eta arrantzako pistola bazituen arren ez zen oso arrantzalea "ez zekien igerian eta".

Komikiak asko gustatzen zitzaizkion. Asteburutan erosten zituzten eta auzoan aldatu neska-mutil koskorren artean.

Arrebe gogoratzen dute txikitana denak elkarrekin jolasten zirela auzoan. "Astakeriak eta bihurrikeriak ere denak batera egiten genituen, eta batek egin bazuen ere denak isilik gero". Mendira ere elkarrekin joaten zirela gogoratzen dute. Aitak sartu zien mendi eta naturarako zaletasuna.

Nerabezaro garaian ez zuten arrebekin horren harreman estua izan, kalean ikusi eta ez zituzten beti agurtzen. Soldaduskan aldiz, badirudi etxekoak asko botza zituela faltan eta handik aurrera egoera aldatu egin zen. Arrebe bere lagunekin ibiltzen hasi ziren. •



Martin Egaña eta Santi Garcia V. Bolo oroimenezkoan parte hartu zuten bolo jaurtitzaillek eta omenduen alargunek amaieran taldek o argazkia atera zuten.

J. A. Belauzaran, Itoiz Alustiza eta Charo Galan garaile

■ 32 bolo jaurtitzaillek parte hartu zuten atzo goizean Michelinen ospatu zen Martin Egaña eta Santi Garcia V. Bolo oroimenezkoan

TXINTXARRI

Bosgarren urtea da Ostadarrek Lasarte-Oriako udalaren laguntzaz Martin Egaña eta Santi Garcia-ri omenaldia egiten diona.

Aurtengo edizioan 32 parte hartzaile bildu ziren Michelin kirol guneko bola tokian.

Hauk guztiak, Urnieta, Hernani, Segura, Zerain, Legazpia, Alza, Herrera edo Idiazabaletik etorriak ziren eta maila desberdinetan lehian ziren, gizonetako, emakumeetako eta jubenilak.

Iazko zenbakia, 35 parte hartzaile, gutxigatik ez zen berdinu. Hala ere, Josean Montes Txispas antolatzaileak onartu zuenez, "nahiz eta jende askok kale egin, bola jaurtitzaille ugari bildu dira. Ez

nuen hainbeste jende espero".

Berdinketak gizonetakoan

Goiz osoko lehiaketaren ostean, gizonetakoan mailan, Jose Angel Belauzaran eta Benito Loitegui urnietarrek jokatu zuten lehenengo postua.

35 birlako berdinketa hau-

tsi behar izan baitzuten eta, azkenean, Belauzaran atera zen garaile.

Hirugarren postua erabakitzeko ere berdinketa hautsi behar izan zen.

Eta kasu honetan, Josean Lasa herritarrek eskuratu zuten hirugarren saria eta, honekin

batera, lehenengo lasarteoriarraren oroigarria.

Lehiarik ez beste mailatan

Jubeniletan eta emakumeetan, aldiz, ez zen lehia handirik egon. Hiru jubenilen artean, Itoiz Alustiza zeraindarra gailendu zen 30 birla bota ostean; Charo Galan lasarteoriatarrek, berriz, ez zuten aurkaririk izan.

Honetaz gain, bola hobereinari, hau da, tirada batean 7 birla botatzen dituenari ere sari berezia eman zioten eta hau Benito Loiteguirentzat izan zen.

Sari banaketa hasi baino lehen, Santi eta Martinen alargunei, Rakel Marin eta Maria Dolores Solanori lore sorta eman zitzaion eta bukaeran parte hartzaile guztiek argazkia egin zuten. •



Emakumen kirola sustatzeko diru-laguntzak

Lasarte-Oriako Udalak kirol federatuen emakumeen partizipazioa indartzeko asmoz, Kirolen Batzordeak 18.000 euroko zenbatekoa duen laguntzen egitasmoa onartu du.

Irailaren 30ean amaitzen zaie herriko kirol elkartei Kirol federatuen emakumeen partizipazioa indartzeko asmoarekin sortutako laguntzen eskaera aurkezteko epea.

Laguntza hauek arautzen dituzten oinarriak interesatuek dauden elkarreentzat eskuragarri daude Udalaren Kiroldegiko bulegoetan.

LOKEko tenis eskola

LOKEko tenis eskolak entrenamenduak hasi ditu eta 7 eta 8 urtetako taldean lekua dago oraindik. Beraz, talde honetan izena emateko epea ireki da, Michelingo kirol gunean egingo da asteleheneetik ostegunera, 18:30etatik aurrera. •

Kiroldegiko neguko ordutegia

Kirolen udal zerbitzuak jakin arazi du kirol guneeke neguko ordutegia dutela. Kiroldegia asteleheneetik ostiralera 7:00tik 22:30etara irekia egongo da, larunbatetan 9:00tik 20:00ra eta igandeetan 9:00tik 13:00ra; igerilekua, berriz, asteleheneetik ostiralera goizez 7:00tik 12:30etara eta arratsaldez 14:00tik 21:30etara, larunbatetan 9:00tik 13:00ra eta 16:00etatik 20:00ra eta igandeetan 9:00tik 13:00ra erabilgarria izango da eta Michelingo kirol gunea asteleheneetik ostiralera 15:00tik 22:00ra, larunbatetan 9:00tik 20:00ra eta igandeetan 9:00tik 13:00ra.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udal
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

NOELIA CRUJEIRAS margolaria-
ren margoak erakusgai. Jalgi
kafe-antzokian, egun osoan.

Osteguna, 25

Hitzaldia

XABIER ARRAZOLAK eskolako
jazarpena den bullying-a nola
sahiestu eta tratatu azalduko
du Sanitateko, Kontsumoko,
Merkataritzako eta Ingurume-
neko departamentuak antola-
tutako hitzaldian. Manuel
Lekuona kulturetxean,
19:00ean, GAZTELANIAZ

Larunbata, 27

Djen emanaldia

DJ BLAMI-ren emanaldia Tta-
kuntronik zirkuituaren
barruan. Jalgi kafe-antzokian,
23:00etan.



*Nazioarteko Akordeoi Jaialdia
larunbatean kulturetxean*

Zero Sette akordeoi orkestrak eta Lasarte-Oriako udalak
antolatutako jaialdiak V. edizioa betetzen du. Lasarte-Oriako
akordeoi orkestraz gain, Orosz Zoltán hungariarra eta Saba-
delleko kontserbatorioko akordeoi orkestra izango dira

LARUNBATA 27, 19:30EAN
KULTURETXEAN, SARRERA, 4 EURO
ELE BIETAN

Korritzeko moduko!
EUSKARAREN 7. MARATOIA

Animatu eta hartu parte!

Urriaren 18an eta 19an ospatuko da Euskararen
VII. Maratoia.

Parte hartzeko aukera asko daude, animatu eta
sartu www.euskararenmaratoian.com web
orrialdean eta eman zure izena!

Parte hartzeko modu asko daude: laguntzaile
gisa edo probetan.

Kamisetak ere dagoneneko salgai daude Ttakun
Kultur Elkartearen eta Jalgi kafe-antzokian.
Haurrenak 10 euro balio dute eta helduenak 15.



Informazio gehiago Ttakun Kultur
Elkartean, (Geltoki kalea 4) edo
943 371448 telefonoan.

Liburutegiko ordutegia



Asteleheneretik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara
eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik
11:45era.
Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Odola ateratzeak

Udarako oporren ondoren
hilabete honetan bestetan
bezala odol ateratzeak hilabe-
teko azken astelehenean, irai-
laren 29an egingo dira
Osasun Zentroan, arratsalde-
ko 18:30etik 21:00etara.
Anima zaitzete, odola ordez-
kaezina da eta!

Txokotako argazkiak

Udaran, uztaila eta abuztuan,
Ttakunek antolatutako txoko-
tan egondako haurren argaz-
kiak jasotzen dituzten Cdak
urriaren 6tik aurrera eskuratu
ahal izango dira Ttakunen
ludotekan. Ordutegia:
17:00:20:00etara.

Tenerifera bidaiari

Biyak Bat zaharren egoitzak
Tenerifera bidaiari antolatu du
urriaren 14tik 24era. Hote-
lean mantenu osoa izango
dela adierazi digute arduradu-
nek, baita islaz gehiago goza-
tu nahi dutenek aukerazko
txangoak izango dituztela ere,

hala nola, Teideko parke
nacionalera edo Santa Cruze-
ra. Prezioa 599 eurotako da
eta izen ematea Biyak Bat
zaharren egoitzean egin
behar da. Bidaiari buruz
gehiago jakin nahiez gero
bertara gerturatzea besterik ez
daukazue.

Xumela korua

Ikasturteari hasiera emanez,
gaurtik hasita, astelehenero
bilduko dira Xumela koruko
kideak. Astelehenero arratsal-
deko 19:30ean bilduko dira
Landaberri BHiko egoitzan.
Interesa duenak agertzea bes-
terik ez du.

Usurbilgo Lanbide Eskola

Irailaren 29an Usurbilgo Lan-
bide Eskolan teoria zein
enpresa praktikaz osaturiko
OFFICE ikastaro bat hasiko
da. Txekinbidek antolatuta
eta honako giza taldeei
zuzendutakoa: Bere lehenen-
go enplegua izan ez duten 35
urte bitarteko pertsonak, 12

hilabete baino gehiago lanik
egin gabe daramaten 40 urte-
tik gorako pertsonak eta lan
egin nahi duten emakumez-
koak. Informazio gehiago
nahi izanez gero 943 364 600
telefono zenbakira deitu.

**San Pedro Parrokiako
Katekesia**

Katekesia egin behar duten
haurren izena irailaren 17tik
aurrera eman behar da San
Pedroko parrokiari. 943 37 30
08 edo 669 76 22 52 telefo-
noetara deituta egin daiteke.
Ikastaroak larunbatean hilean
behin izango dira lehenengo
mailakoentzat, larunbatero
bigarren mailakoentzat, hiru-
garren mailakoentzat (lehen
jaunartzeakoak) asteaetan eta
5, 6 eta 7. Mailakoak astea-
reetan 18:30ean.

Elkarretaratzea Donostian

Irailak 26an, ez da Lasarte-
Orian azken ostiralero elka-
rretaratzerik egingo. Aldiz,
Preso, Errefuxiatu eta Errepre-

saliatuen Senideek, Donostia-
ko Konstituzio plazan elkartu-
ko dira 20:00etan.
Zinemaldiaren atarian egin
asmo dute elkarretaratzea.
Eta, parte hartzera deitu dute.

Oriatarren bazkaria

Irailaren 28 igandean urtero
moduan oriatar eta lagunek
bazkaria egingo dute Txitar-
din Beltza jatetxean.
12:00etan Solano musika
eskolako trikitilariak girotuko
dute goiza eta ondoren
12:30ean (salbuespen
moduan) On Ramon Uribe-
txeberriak zuzenduriko meza
izango da Karmengo kaperan.
Bertan Pilar Catalina sopra-
noa eta pianoan Amaia
Dorronsoro izango dira.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Dagokionari

Hauxe duzu zure
iritzia eta nahi
duzuna adierazteko
atal aproposa. Bidali
edo zuzenean ekarri
TXINTXARRI
aldizkarira.
Horretarako aukera
desberdinak dituzu;
telefonoz, 943-
366858 zenbakira
deituta, posta
elektronikoz
txintxarri@ttakun.com
helbidera bidaliaz.
Gure bulegora
ekarriaz
(Geltoki kalea 4).

Euskaltegietako tituluak guztiz homologatu dituzte aurten

■ Izena emateko epea zabalik dago bai Udal Euskaltegian, bai Muntterin



Rufino Iraola
Udal Euskaltegioko zuzendaria

Zeintzuk dira Udal Euskaltegiaren helburuak?

Helburua irakaskuntza den arren, euskaltegi honek erabilpenari heldu nahi dio. Euskara ikastea ez da nahikoa, jendea bultzatu behar dugu hizkuntza erabiltzera. Ikasleen artean azterketak egin ditugu jakiteko zein ingurutan bizi diren zeinekin hitz egin dezaketen jakiteko. Honek ez du erabilpen bermerik ematen, baina garrantzitsua da ezagutzea jomuga txikien bitartez euskara nola erabili laguntzen diegu eta. Oso garrantzitsuak dira hizkuntza ohitura aldatzeko, dinamika espontaneo batean sartzeko. Dinamika honek mantentzen du hizkuntza bizirik.

Ikasleen motibazioak zeintzuk dira?

Asko izaten dira eta urtetik urtera aldatu egiten dira. Euskara ikaste hutsagatik lehen asko ziren, egun, berriz, gutxieneoak. Egundak lana egiteko tituluen behararengatik datoz. Zein motibazio den onena euskaltegiarentzat? Denak onak dira, beti eta euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko baldin badira. Bere borondatez euskara ikastera datorrenak errazago hitz egingo du kalean. Bestelako esperientziak badaude ere: titulu baten inguruan hasten dira eta pixkanaka ikusten dute ikuspegia zabaltzen zaiela eta euskararekin lehen gozaten ez zituen gauzekin orain gozaten dutela, antzerki ikusi eta ulertzen dutela, adibidez. Dinamikan hasiz gero, nahastu egiten dira motibazioak.

Zein da ikasleen profila?

Gehienak %70 eta %80 bitartean emakumezkoak dira. Irakaskuntzan eta osakidetzan gero eta emakume gehiago dago, beraz lanerako titulu baten beharra ikusten dute. Iruditzen zait ere, emakumea bere prestakuntzan askoz ere gehiago ari dela kezkatzen. Eta adina aldetik, 30 urtetik gorakoak dira gehienak.

Gazteagoak zergatik ez dira euskaltegiara hurbiltzen?

Gazteagoak direnak uste dutela eskolatik euskaraz jakinda ateratzen direla. Baina uste dut, premia handia dagoela gazteen artean euskara hori hobetzeko, batez ere, ahozko hizkuntza hobetzeko. Ikasteko balio dien hizkuntza bat ikasten dute, baina euskara ez da horretarako bakarrik, beharrezkoa da haserretzeko, jolasteko, afektibitatea agertzeko... Gazteen euskarak horretan huts egiten du eta batez ere, ingurualdunetan.

Tituluen homologazioak aldaketarik eragiten al du metodologian?

Homologazioa lortu aurretik metodologia aldatu egin genuen. Gure filosofia hizkuntzarekin zer egin da. Guretzat hizkuntza ekintza da eta zer egin horretan helburu bat dago. Hori lortzeko behar ditugun bitartekoak irakasten dugu, deklinabidea dela, aditzak, esamoldeak dira... Praktikotasuna bilatzen dugu.

Iazko emaitzak?

Iazko emaitzak onak izan ziren: lehen mailako frogetara aurkeztutakoena %85ak gainditu zuen eta 2. eta 3. mailatan %60tik gora.

Euskara ikasi nahi duenari zer esango zenioke?

Euskara ez dela bakarrik euskaltegian ikasten. Euskaltegia eragile bat da, besterik ez. Euskaltegitik at euskara erabiltzen saiatu behar dute, hori abantaila handia da beraiarentzat: bategatik, ikaste prozesua asko laburtzen duelako eta bestetik, ohitura aldatzea ekartzen duelako. •



Lasarte-Oriako euskaltegiaren hainbat ikastaro burutzen dituzte mintza praktika egiteko



Olatz Urdanpilleta
Muntterri euskaltegioko zuzendaria

Zeintzuk dira Muntterri euskaltegiaren helburuak?

Ikasleago euskalduntzea eta euskal kulturaren murgiltzen erakustea. Oso sinplea dirudien arren, beraiarentzat gauza berria da. Euskal musika taldeen letratu edo telebistako saioak ulertzen dituztenean mundu berri bat irekitzen zaie.

Zein da ikasleen motibazioa euskara ikasteko?

Lanerako euskararen beharra motibazio nagusia da. Lanerako ezinbestekoa eta askok aukeratzeko ez dutena da. Halabeharrez ikasten duenari bitarteko ateginak eskaintzen saiatzen gara. Ikasteak ez du tortura bat izan behar, baina hala ere, bakoitzak lana egin behar du eta gu saiatzen gara klaseak erakargarriak egiten eta bakoitzaren beharretara egokitzen.

Halabeharrez ikasten duenak, euskara kalean erabiltzen al du?

Behar batekin hasten dira, baina aldi berean erakusten diogu euskara eguneroko bizitzan erabiltzeko baliagarria dela, seme-alabekin, bizilagunarekin... komunikatzeko. Deskubritzen dutenean aisialdia euskaraz egin dezakete la oso atsegina egiten zaie: haurarekin euskaraz hitz egin, ipuin bat kontatu, telebistako saioak eta antzerkia ulertu dezakete. Baina, pazientzia behar da. Euskaltegian euskara ikasiko dute, baina egun osoa dute euskara erabili ahal izateko.

Teoriatik praktikara erraz pasatzen al dira?

Bakoitzari galdeketa bat egiten diogu zein inguru duen euskararekin lagunduko diona ezagutzeko: irakurtzeko, telebista ikusteko, irratia entzuteko dituen ohiturak. Gustatzen zaizkion gauzetatik hasten gara eta hori menperatzen duenean, gainontzeko ere euskaraz egingo du. Euskararekin aukera zabal bat irekitzen zaio. Horretarako ausarta izan behar da eta hanka sartuz ikusten da. Kasu batzuetan zaila da ingurukoekin euskaraz hitz egitea, lotsa galtzea... gainkarga eta guzti sortu daiteke. Horregatik, hizkuntza berri bat hitz egiteko garaian, beldurrik kontrolatu egin behar ditugu.

Tituluen homologazioak metodologia aldatuko al du?

Kasu batzuetan bai, ikasle guztiak ez baitira tituluen bila etortzen. Horregatik, ikasturteko plangintza egiten dugunean, ikasleak hartzen ditugu kontutan. Adibidez, idazlanak ez dira beraien lehentasuna baina azterketak gaintzeko idazlan luzeak eta landuak egiteko gai izan behar dute. Beraz, batzuen eta besteen beharrak uztartzen saiatzen gara.

Zein da AEKko ikasleen profila?

Alde handiena adina aldetik dago. Lehenengo mailatan jende heldua aritzen da. Normalean, eskola garaian euskara zerbait ikasi baina hitz egiten ez dakitenak dira. Maila altuetan aldiz jende gazteagoa dago. Euskaraz ikasi eta titulu atera nahi dutenak dira.

Emaitza onak lortu al zenituzten iaz?

Aurreko ikasturtean %70ak gainditu zuen. Emaitza ona da eta poztan gaitu, baina, gure helburua ez da hori, jendea euskalduntzea baizik. Estatistika bat besterik ez luke izan behar, inoiz helburua. Ikasleen helburua ere ez luke azterketa gaintzea izan behar, baizik bakoitzak bere bizitza euskaraz bizitzeko gai izatea. Bestela, alperrik da. Hizkuntza guztiak erabiltzen ez badira galdu egiten dira. •